

Euskadiko iraunkortasun-erronkei buruzko parte-hartze prozesutik ateratako ondorioen txostena

2011ko urtarrilaren 25eko eta 26ko jardunaldiak



2011ko urtarrila

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Eragile sozioekonomikoei zuzendutako prozesuaren hasiera
3. Jardunaldiaren deskribapena
 - 3.1. Lehen zatia: EkoEuskadi 2020ren aurkezpena
 - 3.2. Bigarren zatia: Dinamika parte-hartzailea:
4. Parte-hartze tailerretatik ateratako ondorioak
 - 4.1. 1. dinamika: «Garapen iraunkorrari buruzko kontzeptu-hodeia»
 - 4.2. 2. dinamika: «9 erronken kontrastea»
 - 4.3. Internet eta posta elektronikoko bidezko ekarpenak
5. Parte-hartzaileen feedbacka

1. Sarrera

EkoEuskadi 2020 Eusko Jaurlaritza buru duen ekimena da eta **Garapen Iraunkorreko lehenengo Estrategia** osatzea du helburu. Helburua ekonomia oparotasunaren, ekitatearen, gizarte kohesioaren eta ingurumen babesaren alderdiei buruzko hausnarketa egitea da, begiak 2020ean jarrita.

Patxi Lopez lehendakariaren esanetan, EkoEuskadi 2020 «**ekonomia** da, **ekologia** da, gizartearen ahotsaren oihartzuna da. Guztion onurarako guztion proiektua da».

Hausnarketa honek hiru helburu ditu:

- **Euskadiko politika publikoetarako gida** izatea, nola iraunkortasun ekonomikoaren arloan hala gizarte edo ingurumen iraunkortasunaren arloan.
- **erreferentziako esparru estrategiko** bihurtzea, iraunkortasunaren ikuspuntua edozein sektore-politikan sartzeko.
- **Gobernuaren jardunerako gida** bihurtzea, politika publikoak eta erantzukidetasunari eta gobernantzari dagokienez eman behar diren aurrerapenak ebaluatzeko konpromisoarekin.

Hori guztia **Europa Estrategia 2020arekin** bat datorren espirituarekin.

Herritarren segmentu ezberdinak modu eraginkorrean mobilizatzeko, honako hauei zuzentzen zaizkien **hiru parte-hartze prozesu** paralelo proposatzen dira:

- a) Eragile sozioekonomikoak eta erakundeetakoak
- b) Gazteak
- c) Herritarrak

Halaber, online komunikazio bidea ezarri da www.irekia.net, www.ecoeuskadi2020.net eta Openideiak web orrien bitartez eta Facebook, LinkedIn eta Twitter sare sozialen bitartez.

2. Eragile sozioekonomikoei zuzendutako prozesuaren hasiera

2011ko urtarrilaren 3an Eusko Jaurlaritzako Lehendakariitzako idazkari nagusi Manu Salinerok Euskadiko enpresak deitu zituen EkoEuskadi 2020 **Euskal Autonomia Erkidegoko Garapen Iraunkorreko lehenengo estrategian** parte hartzera. **2011ko urtarrilaren eta maiatzaren** artean gauzatuko den **eragile sozioekonomikoei zuzendutako parte-hartze prozesuaren hasiera** izan da, eta diagnostia, erronkak eta estrategia osatzen dituzten lerro nagusiak kontrastatzea du helburu.

Testuinguru horretan gauzatuko da aipatutako prozesuaren **lehenengo saioa**. Honako hauek ditu helburu:

1. EkoEuskadi 2020 prozesua **aurkeztea**: esparru orokorra, metodologia-eskema eta antolamendu-eskema.
2. **Dinamika parte-hartzailea** abian jartzea. Honako hauek ahalbidetu behar ditu:
 - garapen iraunkorraren kontzeptuaren inguruko terminologia komuna sortzea.
 - egoera-diagnostian planteatzen diren bederatzi erronkak kontrastatzea.
3. Parte hartuko duten erakundeen eta eragileen arteko beharrezko **konfiantza giroa** sortzeko lehenengo urratsak ematea.

Halaber, **online prozesu paraleloa** jarri da abian. Prozesu hori sare sozialen (Facebook, LinkedIn eta Twitter) bitartez eta Openideiak web orriaren bitartez egingo da.

Dokumentu honen helburua aipatutako saiotik ateratako **ondorio nagusiak** aurkeztea da, honako alderdi hauei dagokienez:

- Dinamika parte-hartzaileen (aurrez aurrekoen nahiz urrutikoen) emaitzak
- Eragile parte-hartzaileen iritziak, banatutako feedback orrietan jasotakoak
- Jardunaldietan parte hartu duen pertsona kopurua

3. Saioaren deskribapena

Prozesuaren lehenengo saiorako proposatutako helburuak betetzen direla bermatzeko **agenda** bat sortu da, bi zatitan egituratuta:

- **LEHEN ZATIA** (ordu 1 eta 30 minutu): EkoEuskadi 2020ri testuingurua ematera eta prozesua prestatzera bideratuta dago.
- **BIGARREN ZATIA** (ordu 1 eta 30 minutu): Parte-hartze prozesuari hasiera ematera zuzenduta dago.

Ahalik eta jende gehien joan dadin eta ahalik eta gutxien mugi daitezzen, **hiru toki** proposatu ziren:

- Bizkaian: Bilboko Deustuko Unibertsitateko liburutegia. urtarrilaren 25ean, 9:30ean.
- Gipuzkoan: Arrasateko Enpresa Berrikuntza Gunea. urtarrilaren 25ean, 15:30ean.
- Araban: Gasteizko Artium museoa. urtarrilaren 26an, 9:30ean.

3.1. Lehen zatia: EkoEuskadi 2020ren aurkezpena

Honela egituratu zen jardunaldiaren lehenengo zatia:

1. Ongietorria eta jardunaldiaren plana

Bilbon eta Arrasaten unibertsitate anfitrioiaren ongi-etorriaren ondoren, Koldobike Uriarte Eusko Jaurlaritzako Koordinazio zuzendariak eta EkoEuskadi 2020ren Segimendu Batzordeko kideak EkoEuskadi 2020 aurkeztu zuen eta lehendakariak prozesua kokatzeko egindako bideoa jarri zuen.

2. Hitzaldi markoa: Europa 2020 Estrategia

Jarraian, Marta Marín Eusko Jaurlaritzak Bruselan duen ordezkariak Europa 2020 Estrategia osatzen duten lerro nagusiak aurkeztu zituen.

3. EkoEuskadi 2020ren aurkezpena

Alfredo Gomez Arrietak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko kabinete zuzendari eta EkoEuskadi 2020ren Segimendu Batzordeko kideak, parte-hartze prozesuaren xedea, helburuak eta ikuspegia aurkeztu zituen.

4. Diagnosiaren gakoak

EkoEuskadi 2020ren idazkaritza tekniko kideek aurkeztu zituzten diagnosiaren gako nagusiak. Honako hauek izan ziren aurkezleak: Jorge Garbisu (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila), Miren Amilibia (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila), Ernesto Unzurrunzaga (Ekonomia eta Ogasun Saila), Mariví García (Eustat) eta Juan Miguel López (Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila).



1. irudia. Mahai nagusia. Bilbon 2011ko urtarrilaren 25ean

Azkenik, dinamika parte-hartzailearen ostean, Ihebeko zuzendari nagusi eta EkoEuskadi 2020ren Segimendu Batzordeko kide Fernando Barrenecheak amaitutzat eman zuen jardunaldia.

3.2. Bigarren zatia: Dinamika parte-hartzailea:

2011ko urtarrilaren eta maiatzaren artean garatuko den prozesuaren oinarriak finkatze aldera, bi dira lehenengo dinamika honen oinarrizko helburuak:

1. «**Garapen iraunkorra**» kontzeptuaren inguruan dagoen adostasuna ikustea
2. Eragile sozioekonomikoekin batera «**Euskadiko garapen iraunkorreko 9 erronken**» proposamena adostea, osatzea eta aberastea. Proposamenak EkoEuskadi 2020ren idazkaritza teknikoak osatu zituen eta aldez aurretik bidali zitzaizkien parte hartzaileei.

Proposatutako helburuei heltzeko bi dinamika parte-hartzaile garatu ziren. Bakoitzean **batez beste 7 pertsona** eta dinamizatzaile bat zeuden. Mahai bakoitza ausaz osatu zen eta prozesua gaztelaniaz zein **euskaraz** gauzatzeko aukera eman zen.

	Bizkaia	Gipuzkoa	Araba
Talde kopurua	25	7	10
Tokiaren arabera			

2. irudia. Lantaldeak tokiaren arabera


Innobasqueko eta Lavolako langileek eta Adimen Emozionaleko Partzuergoko kideek osatzen zuten **dinamizatzaileen taldea**.

Lehenengo dinamika, «**garapen iraunkorrari buruzko kontzeptu-hodeia**» izenekoa, sarrera moduan planteatu zen eta talde bakoitzeko 15 minutuko iraupena zuen. Pertsona bakoitzak «garapen iraunkorra» kontzeptua hoberen definitzen dituzten hiru hitz identifikatu behar zituen, eta hori kontzeptu horiek post-it batean apuntatu. Jarraian, bakoitzaren ekarpenak partekatu behar zituzten, eta, taldeko pertsona guztien artean kontzeptu-hodeia osatu behar zuten. Horretarako, taldearen iritziz kontzeptua hoberen laburtzen zutenak bildu eta hautatu behar zituzten.



3. irudia: 1. dinamika, Gasteiz, urtarrilaren 26an

Bigarren dinamika, «9 erronken kontrastea» izenekoa garatzeko 65 minutu izan zituen talde bakoitzak. Dinamika honek EkoEuskadi 2020ren idazkaritza teknikoak aurkeztutako «Euskadiko Garapen iraunkorreko 9 erronkak» taldekideen artean kontrastatzea zuen helburu.



EAEko garapen iraunkorreko erronka nagusiak

- 1 Indarrean dugun energia ereduaren agortzea.
- 2 Lehengaiak eta baliabide naturalak murriztea.
- 3 Lehiakortasuna globalizatzea.
- 4 Demografia aldaketak.
- 5 Balioen sistema ahultzea.
- 6 Gazteak lan merkatuan eta gizarte bizimoduan bertatzea.
- 7 Klima aldaketara egokitzea.
- 8 Kudeaketa publikoaren konplexutasun hazkorra.
- 9 Nazioarteko kohesio eta garapena.

4. irudia. Proposatutako erronken zerrenda

Abiapuntu gisa, parte hartzaile bakoitzak 10 minutu izan zituen erronka bakoitzari buruz hausnartzeko, ados dagoen edo ez esateko, horien inguruko komentarioak egiteko edo jatorrizko proposamenean aurreikusi ez ziren erronkak proposatzeko.

Jarraian, talde bakoitzak proposatutako erronken **adostasun edo desadostasun maila** eztabaidatu eta proposamenean aurreikusten ez ziren erronkak partekatu zituen eta behin betiko zerrenda **adostu** behar zuten.

Eztabaidaren ondoren, eta dinamika amaitzeko, taldekide bakoitzari 2 puntu gorri eman zitzaizkien **lehentasun** gehien duten erronkak zeintzuk diren adieraz zituzten.

Parte-hartze tailerra amaitzeko eta erronkei buruzko lehenengo ondorio eta eztabaidetara hurbiltzeko modu gisa, saio bakoitzeko «garapen iraunkorrari buruzko kontzeptu-hodeia» eta proposatutako erronkei buruz talde bakoitzak izandako eztabaiden sintesia aurkeztu ziren.

Bi dinamikak online gauzatu ziren aldi berean, horretarako ezarritako kanaletan.



5. irudia. 2. dinamika. Arrasate, urtarrilaren 25ean

4. Parte-hartze tailerretatik ateratako ondorioak

Proposatutako bi dinamiken bitartez, parte hartzaileek «garapen iraunkorra» kontzeptuari eta «Euskadiko garapen iraunkorreko 9 erronkei» hainbat ekarpen egin zizkieten: kontzeptuak, ideia, iruzkinak eta proposamenak.

Lehenengo dinamikari dagokionez, lau kontzeptuk laburbiltzen dute «garapen iraunkorra», eta denak datoz bat esku artean zuten kontzeptuarekin:

- Etorkizunerako bermea
- Sistema-ikuspegia
- Oreka
- Balioak

Oro har, parte hartzaileak oso ados agertu ziren proposatutako 9 erronkekin, proposatutako hasierako ikuspegian aldatu beharreko alderdiak adierazi zituzten arren.

Arrakasta gutxien izan zuten erronkak bosgarrena (balio-sistemaren ahultzea) eta seigarrena (gazteria eta horiek lan merkatuan sartzea) izan ziren. Lehenengo kasuan, erronka formulatzeko moduarekin ez zetozen bat parte hartzaileak; izan ere, **ez zuten uste balio-sistema ahultzen ari denik**. Aitzitik, une bakoitzeko egoeretara egokitzeko beharretik eratorritako bilakaera izan dela uste zuten, historian beste hainbatetan gertatu den moduan. Seigarren erronkari dagokionez, gazteek lana eta etxebizitza topatzeko duten zailtasuna **gazteek betidanik izan duten arazoa** dela eta aurreko belaunaldiek ere jasan dutela uste zuten. Gainera, adierazitakoaren kontra, aipatutako beharrak, sormen, berrikuntza eta ekintzaletasun ahalmenak oztopo izan baino, **estimulua izan beharko liratekeela** uste zuten, beharrak adimena eta sormena zorrotzen baititu.

Bestalde, 4. erronkaren (aldaketa demografikoak) eta 8. erronkaren (kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa) **irismena handitzeko** beharra planteatu zen. Lehenengoan, gizarte zerbitzuak birformulatzeko beharra eta etorkinen integrazioa sartuko lituzkete eta, bigarreanean, funtzio publikoa eraginkorragoa egiteko beharra nabarmenduko lukete.


Halaber, 1. erronka (indarrean dagoen energia-ereduaren agortzea), 2. erronka (lehengaien eta naturako baliabideen mugak) eta 7. erronka (klima aldaketara egokitzea) **integratzeko proposamena** nabarmendu behar da.

Erronka berri gisa, **garraio ereduari** buruzkoak eta **genero berdintasunari** buruzkoak planteatu ziren, beste batzuen artean.

Azkenik, nabarmentzekoa da jardunaldietako eztabaidetako batzuetan **txikiagotzea** aipatu izana.


4.1. 1. dinamika: «Garapen iraunkorrari buruzko kontzeptu-hodeia»

«Garapen iraunkorrari buruzko kontzeptu-hodeia» izeneko 1. dinamikan 695 bat kontzeptu bildu ziren.



6. irudia. «Garapen iraunkorra»ren 695 kontzeptu

Bildutako 695 kontzeptuen kidetasun-diagramatik **10 kontzeptu-hodei** ateratzen dira, jarraian ikus daitekeen moduan:




7. irudia. «Garapen Iraunkorraren» kontzeptu-hodeia

Kontzeptu bakoitzak kontzeptu multzoak hartzen ditu barne, eta horiei esker interpreta ditzakegu:

1. hodeia. Etorkizunerako bermea


Kontzeptu-hodeirik handienak **gure etorkizuna bermatzeko** bide gisa ikusten du garapen iraunkorra. Honelako kontzeptuak biltzen ditu: iraunkorra, iraunkortasuna, babesa, ziurtatzea, zaintzea, iragangaiztasuna eta bermea.



8. irudia. Etorkizunerako bermea

2. hodeia. Sistema-ikuspegia


Bigarren hodeian, garapen iraunkorrari erreferentzia egiten zaio **sistema-ikuspegitik**, alegia, jorratzen diren arlo ezberdinen **laburpen konplexu** gisa ulertzen da.



9. irudia. Sistema-ikuspegia

3. hodeia. Oreka


Oreka, kohesioa eta harmonia bihurtzen ditu garapen iraunkorraren bereizgarri nagusi.



10. irudia. Oreka

4. hodeia. Balioak


«Garapen iraunkorra»ren prozesuaren ezaugarri diren balioak biltzen ditu.



11. irudia. Balioak

5. hodeia. Ongizatea eta aurrerapena


Biltzen dituen kontzeptuek positiboki interpretatzen dituzte «garapen iraunkorra»ren emaitzak, ongizateari eta aurrerapenari dagokienez.



12. irudia. Ongizatea eta aurrerapena

6. hodeia. Eraginkortasuna baliabideen kudeaketan


Hodei honetan kontzeptua baliabideen kudeaketaren eraginkortasunarekin eta austeritatearekin lotzen da.



13. irudia. Eraginkortasuna baliabideen kudeaketan

7. hodeia. Aldaketa eta berrikuntza


Hodei honetan Garapen iraunkorra aukera moduan, berrikuntza iturri moduan ikusten da, eta aldaketa eta desikasketa dira horren emaitza.



14. irudia. Aldaketa eta berrikuntza

8. hodeia. Hezkuntza eta kontzientziazioa


Jarrerak aldatzeko oinarri gisa hezkuntza eta kontzientziazioa lantzeko eta Garapen Iraunkorrari lotutako balioak, aurretik aipatutakoak, «praktikan jartzeko» beharra antzematen da hodei honetan sartutako kontzeptuetatik.



15. irudia. Heziketa eta kontzientziazioa

9. hodeia. Estrategia globala.


Hodei honetan amets eta erronka gisa ikusten da garapen iraunkorra eta, horietarako, estrategia zehaztu eta ekintza garatu behar da. Hori guztia, behar eta lehentasunetan oinarrituta, iragana, oraina eta etorkizuna eta esku-hartzeen ikusmolde «globala» biltzen dituen denbora-esparruaren barruan.



16. irudia. Estrategia globala

10. hodeia. Eszeptizismoa

Hodei honetan «garapen iraunkorra»ren planteamenduekiko eszeptizismoa islatzen da eta honako hauei buruzko kezka planteatzen dira: kontzeptuak sor ditzakeen kontraesanak, eredia aldaketaren aurreko kezka, eragile eta erakundeen beste moda bat eta «aurpegi garbiketa» delako ideia eta arriskuan jar dezaketen mugak, burokrazia eta konpromiso falta.



17. irudia. Eszeptizismoa

4.2. 2. dinamika: «9 erronken kontrastea»

Hiru tokietan egindako lan saioen emaitza banan-banan edo mahairen batean parte hartu dutenen ekarpenak dira.

Ondorioak osatzeko prozesuak, jarraian azalduko dugunak, ondorengo bi elementu hauek ditu oinarri:

- Erronka bakoitzari lotutako **desadostasun eta lehentasun mailaren analisia**.
- Mahai bakoitzean jorratutako **alderdi nagusien laburpena**.

Oro har, parte hartzaileak oso ados agertu ziren proposatutako 9 erronkekin, proposatutako hasierako ikuspegian aldatu beharreko alderdiak adierazi zituzten arren.

Arrakasta gutxien izan zuten erronkak bosgarrena (balio-sistema ahultzea) eta seigarrena (gazteria eta horiek lan merkatuan sartzea) izan ziren. Lehenengo kasuan, erronka formulatzeko moduarekin ez zetozen bat parte hartzaileak; izan ere, **ez zuten uste balio-sistema ahultzen ari denik**. Aitzitik, une bakoitzeko egoeretara egokitzeko beharretik eratorritako bilakaera izan dela uste zuten, historian beste hainbatetan gertatu den moduan. Seigarren erronkari dagokionez, gazteek lana eta etxebizitza topatzeko duten zailtasuna **gazteek betidanik izan duten arazoa** dela eta aurreko belaunaldiak ere jasan dutela uste zuten. Gainera, adierazitakoaren kontra, aipatutako beharrak, sormen, berrikuntza eta ekintzaletasun ahalmenak oztopatu baino, **estimulua izan beharko liratekeela** uste zuten, beharrak adimena eta sormena zorrotzen baititu.

Bestalde, 4. erronkaren (aldaketa demografikoak) eta 8. erronkaren (kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa) **irismena handitzeko** beharra planteatu zen. Lehenengoan, gizarte

zerbitzuak birformulatzeko beharra eta etorkinen integrazioa sartuko lituzkete eta, bigarrenean, funtzio publikoa eraginkorragoa egiteko beharra nabarmenduko lukete.




Horrez gain, 1. erronka (indarrean dagoen energia-eredua agortzea), 2. erronka (lehengaien eta naturako baliabideen mugak) eta 7. erronka (klima aldaketara egokitzea) **integrazteko proposamena** nabarmendu behar da.

Erronka berri gisa **garraio ereduari** buruzkoak eta **genero berdintasunari** buruzkoak planteatu ziren, beste batzuen artean.

Azkenik, nabarmentzekoa da jardunaldietako eztabaidetako batzuetan **txikiagotzea** aipatu izana.

a) Erronken desadostasun eta lehentasun mailaren analisia.


Desadostasun mailarik handiena sortu duen erronka bosgarrena (**balio-sistema ahultzea**) izan da. **% 40koa** izan da desadostasun-maila. Erronka formulatzeko moduak eragin du desadostasun hori, aurrerago ikus daitekeen bezala. Ondoren, 6. erronka (**gazteak lan merkatuan eta gizarte bizitzan sartzea**) eta 8. erronka (**kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa**) daude. Lehenak **% 22ko** desadostasun-maila izan du, eta bigarrenak **% 21ekoa**. Adostasun-mailarik handiena lortu duen erronka lehenengoa (**indarrean dagoen energia eredua agortzea**) izan da. **% 96ko** adostasun-maila lortu du, emandako ikuspuntuan ñabardurak proposatu badira ere.



18. irudia. Erronken adostasun-maila

1. *erronka*. Indarrean dagoen energia eredua agortzea
2. *erronka*. Lehengaien eta naturako baliabideen mugak
3. *erronka*. Lehiaren globalizazioa
4. *erronka*. Aldaketa demografikoak
5. *erronka*. Balio-sistemen ahultzea
6. *erronka*. Gazteak lan munduan eta gizarte-bizitzan sartzea
7. *erronka*. Klima aldaketara egokitzea
8. *erronka*. Kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa
9. *erronka*. Kohesioa eta nazioarteko garapena

Erronka bakoitzaren lehentasun maila aintzat hartuz gero, 7. erronka (klima aldaketara egokitzea) izango litzateke lehentasun gutxiena duena parte hartzaileentzat (% 56)¹, eta horren ondoren, 8. erronka (kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa) (% 57) eta 5. erronka (balio-sistema ahultzea) (% 62).



19. irudia. Erronken lehentasuna

1. *erronka*. Indarrean dagoen energia eredua agortzea
2. *erronka*. Lehengaien eta naturako baliabideen mugak
3. *erronka*. Lehiaren globalizazioa
4. *erronka*. Aldaketa demografikoak
5. *erronka*. Balio-sistemen ahultzea
6. *erronka*. Gazteak lan munduan eta gizarte-bizitzan sartzea
7. *erronka*. Klima aldaketara egokitzea
8. *erronka*. Kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa
9. *erronka*. Kohesioa eta nazioarteko garapena

¹ Lehentasun maila kalkulatzeko adierazitako hiru mailetakoko bakoitzaren balorazioa (handia, ertaina eta txikia) batura haztatua egin da eta maila bakoitzari 10, 5 eta 0 haztapenak, hurrenez hurren, eman zaizkio. Desadostasun-mailari dagokionez, ados ez dauden parte hartzaileen ehunekoaren eta parte hartzaile guztien arteko aldetik lortu da kalkulua.

Aipatzeko modukoa da, 6. erronkari (gazteak lan merkatuan sartzea) dagokionez, bi ikuspegien artean eman ziren zenbait inkongruentzia; izan ere, parte hartzaileen % 22 ados bazeuden ere, 3. erronkarik garrantzitsuena dela uste zuten.

b) Erronken desadostasun eta lehentasun mailaren analisia

Mahai bakoitzak erronkei buruz zuen informazioa bildu eta aztertu ondoren, erronka bakoitzari buruzko sintesi lana egin da. Sintesi lan hori jarraian aurkezten da:

1. ERRONKA. INDARREAN DAGOEN ENERGIA EREDUA AGORTZEA

Gure bizitzeko era eta horri lotutako ekoizpen sistema energia fosilen (petrolio eta gas naturala) mende daude erabat. Energia eredu hori agortzen ari da, gehieneko ekoizpena iritsi baita.

Adostasun mailarik eta lehentasunik handienak lortu zituen erronka da hau. Iritzi gehienek erronkari berari ez ezik, berau heltzeko kontuan izan beharreko neurri eta faktoreei egiten diete erreferentzia, esaterako, energia berriztagarrien edo/eta ekoizpen modu berrien aldeko apustuari, energia eraginkortasuna sustatzeari eta abarri. Erronkara mugatzen diren iruzkinak soilik hartzen baditugu aintzat, ondorengo proposamen hauek nabarmendu behar dira:

- Erronka hau 2. erronkarekin (lehengaien eta naturako baliabideen mugak) eta 7. erronkarekin (klima aldaketara egokitzea) integratzea. Proposamen horrek erreferentzia egiten dio **gure ekoizpen eta kontsumo sistemako baliabideen gero eta erabilera handiagoari**. Bi kasuetan honako hauek hartzen dira baliabidetzat:
 - petrolio, gasa edo energia elektrikoa
 - lehengaiak
 - lurzorua
 - CO₂
 - elikagaiak eta pentsuak
- Aldi berean, honako ideia hau mahaigaineratu zen: erronka ez datza baliabideak agortzean, baizik eta gero eta gehiago eskatzen ditugun baliabideen eskasian. **Hirugarrenetikiko dugun gero eta mendekotasun handiagoa** da, beraz, erronka. Ildo horretatik, honako hau aipatu zen: energia eredu **iraunkorra ez dela berriztagarriaren sinonimo**; aitzitik, **autosufizientziari** egiten dio erreferentzia, eta, beraz, **teknologia nuklearra** bezalako teknologiek ez dute zentzurik.
- Bestalde, ingurumen iraunkortasunaren ikuspegitik, indarrean dagoen energia eredu agortua dagoela planteatu zen, **baliabideak mugarik gabe eskura ditzakegun edo ez kontuan izan gabe**, kliman duen eragin handia dela eta.

Aipatzekoa da baliabideen agortze errealari buruzko eszeptizismoa, merkatu horiei lotutako espekulazio maila handiaren ondorioz sortutakoa.

2. ERRONKA. LEHENGAIEN ETA NATURAKO BALIABIDEEN MUGA

Ez ditugun lehengai eta naturako baliabide asko baliatzen ditu gure ekoizpen sistemak.

Erronka honekin bat etorri ziren parte hartzaileen % 95. Hala ere, hasierako planteamenduan aldaketak sartzea iradoki zen. Honako hauek dira aldaketa horiek, lantaldeetan planteatu ziren maiztasunaren arabera ordenatuta:

1. *Kontsumo eredu*: Aurreko kasua bezalaxe, **kontsumoan oinarritutako gizarte ereduarekin** lotzen da bete-betean erronka hau. Eraiki dugun gizarte eredu horretan pixkanaka-pixkanaka txikituz joan da produktuen balio bizitza, eta sortutako hondakin kopurua handituz joan da.
2. *1. eta 7. erronketan integratzea*: Aurreko kasuan bezalaxe, erronka hau 1. erronkarekin (indarrean dagoen energia eredu agortzea) eta 7. erronkarekin (klima aldaketara egokitzea) bat egitea iradoki zen.
3. *Lehen sektorea*: Nekazaritzarekiko mendekotasunari dagokionez, **lehen sektorea** Euskadiko ekonomian pixkanaka-pixkanaka **indarra galtzen ari** dela aipatzea proposatu zen.
4. *Emandako informazioa handitzea*: Zera proposatu zen: **egungo bizitzeko moduan duen eraginari buruzko informazioa, prezioen eta ditugun baliabideen bilakaera-agertokiaren arabera**, erronkaren dimentsioa hobeto ikusi ahal izateko.

3. ERRONKA. LEHIAREN GLOBALIZAZIOA

Gure lehiakortasunaren terminoak berriro definitu behar ditugu bi arrazoirengatik: batetik, eragile handi eta indartsu berriak (Brasil, Errusia, India eta Txina) sartu direlako mundu merkatuan, eta, bestetik, horri lotuta energiaren eta lehengaien eskaria handitu delako mundu mailan.

Erronka honek adostasun maila handia izan zuen baina garrantziari dagokionez 5. postuan dago. Lehendabiziko kasuan bezalaxe, iruzkinetako asko konponbideak emateari bideratuta zeuden. Honako hauek dira konponbideetako batzuk: bereizketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua egitea, merkatu-nitxo lehiakorak bilatzea, nazioarteko lankidetzak sustatzea eta tokiko lankidetzak bultzatzea. Erronkaren ikuspegiari dagozkion iruzkinen artean honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Globalizazioa ez da joera bat, **errealitatea** baizik. Brasilek, Errusiak, Indiak eta Txinak duten gero eta pisu handiagoak joera bat sor dezake, baina horrek ez dakar agertoki aldaketarik, besterik gabe mehatxua beste bat izatea baizik (lehen ekialdeko herrialdeak ziren).
- **Aldaketaren abiadura handitik** eta lehiakortasun maileri eusteko agertoki honek eskatzen duen **egokitzapenetik** etor daiteke erronka.

Gainera, erronka honen eta **1. eta 2. erronken** artean sinergiak daudela uste zuten; izan ere, lehiakortasunaren globalizazioa energia mendekotasunaren arazoaren, baliabide eskasiaren eta prezioen garestitzearen parte baita. **9. erronkarekin** (nazioarteko kohesioa eta garapena) ere loturak antzeman ziren.

4. ERRONKA. ALDAKETA DEMOGRAFIKOAK

Bizi-itxaropena handitzen ari da eta jaiotza-tasa txikitzen; hori dela eta, arriskuan daude gizarte zerbitzuak eta osasun zerbitzuak emateko eredu finantza bideragarritasuna eta lan indarraren ordezkapena belaunaldi belaunaldi.

Erronka honen inguruan gehien aipatu den alderdia erronkaren planteamendu erredukzionista eta ekonomizista izan da, gizarte zerbitzuen finantza bideragarritasun hutsetik haratago dagoen gizarte arazoa baita. Ildo horretatik, proposatu ziren alderdiek honako hauek hartzen dituzte, aipamen ordenaren arabera:

- **zerbitzuak birformulatzea**, egun ulertzen ditugun bezalaxe, eta mendeko taldeentzako (haurrak eta adinekoak) arreta eta ordezeko formulak, tartean lan kontziliazioa, ezartzea bezalako alderdiei erreferentzia egitea
- **etorkinak gizarteratzeko** zerbitzuak sartzea. Zerbitzu horiek gizarte tentsioak murrizten eta kohesioa bermatzeko beharrezko loturak sortzen lagundu behar dute.
- helduen **aditu-ezagutzak irudikatzen duen aktiboari ahalik eta etekin gehien ateratzea** bermatuko duten formula berriak eraikitze beharra.

Bestalde, **lan indarra belaunaldi belaunaldi ordezkatzeko ez zuten erronka gisa ikusten**. Batetik, gazteen langabezia tasa handia delako, eta, bestetik, tasa hori egoeraren arabera izango balitz, globalizazioaren ondoriozko pertsonen joan-etorriek erronkak zentzurik ez izatea eragingo luketelako. Ondorioz, zera planteatu zen: benetako erronka enplegua sortzeari buruzkoa dela eta egungo eta



etorkizuneko ongizate sistemaren bideragarritasuna bermatzeaz gain, gure eskualdeko garapena bera ere bermatu behar duela.

Azkenik, erronka hau eta 8. erronka (kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagoa), baliabide publikoen kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeari dagokionez, elkarri lotuta daudela proposatu zuten; izan ere, hein handi batean, zerbitzuen finantza bideragarritasuna horren mende dagoela uste zuten.

5. ERRONKA. BALIO SISTEMA AHULTZEA

Euskadiko gizarteari forma eta zentzua eman dion balio sistema ahultzen ari da. Ondorioz, arazo berriei aurre egiteko gizarte gisa dugun ahalmena murriztu egiten da.

Erronkarik **polemikoena** izan zen; izan ere, adostasun mailarik txikiena izan zuen. Parte hartzaileen % 60 zeuden erronkarekin ados. Desadostasun horren arrazoi nagusia erronka formulatzeko modua da, eta ondorengo alderdiak nabarmentzen dira:

- **Balio sistema ez da ahultzen ari.** Aitzitik, une bakoitzeko egoeretara egokitzeko beharretik eratorritako bilakaera da, historian beste hainbatetan gertatu den moduan.
- Bilakaera horren ondorioz, **garapen iraunkortasunerako positiboak diren** balioak azaleratu dira; horien artean, ingurumenarekiko errespetua eta genero berdintasuna. Baina negatiboak direnak ere agertu dira, esaterako **kontsumismoa** eta **indibidualismoa**. Horrexegatik, azkeneko horietan indar egitea beharrezkoa da, baita hasierako proposamena handitzea ere, berrikuntza sustatzearekin lotutako balioetara mugatu baita. Honako hauek dira aipatutako balioetako batzuk: espiritu kritiko konstruktiboa, solidaritatea, elkartegintza eta borroka eta sakrifizio espiritua.
- **Hezkuntza eredia** eta **komunikabideak** dira egungo balio-sisteman edozein aldaketa eragiteko indar gehien duten arloak.



6. ERRONKA. GAZTEAK LAN MERKATUAN ETA GIZARTE BIZITZAN TXERTATZEA

Lan merkatuan sartzeko eta etxebizitza lortzeko gazteek dituzten arazoak frustrazioa eragiten ari dira, eta horrek etorkizunean eraldatzeko ahalmena murriztea ekar dezake. Sormena berritzea, berrikuntza eta ekintzaletasuna gelditu edo muga daitezke.

Aurreko erronkarekin batera eztabaida gehien sortu zuen erronka da hau. Zehazki, parte hartzaileen % 22 ez zetozen bat erronka honekin. Honako hauek dira ados ez egoteko arrazoi nagusiak:

- Lanpostu eta etxebizitza lortzeko zailtasuna **betidanik egon den arazoa da**, hain zuzen ere, modu batera edo bestera aurreko belaunaldiek ere jasan dutena. Izan ere, enpleguari dagokionez, esan daiteke **bizi dugun unearen araberako egoera** dela eta, gainera, ez duela aipatutako taldea bakarrik kaltetzen.
- Adierazitakoaren kontra, aipatutako beharrak, sormen, berrikuntza eta ekintzaletasun ahalmenak oztopatu baino, **estimulua izan beharko liratekeela** uste zuten, beharrak adimena eta sormena zorrotzen baititu.

Bestalde, erronka honekin lotuta **hezkuntza eredia** proposatu zen. Horrek, eskola uztearen edo eskatutako titulazioak eta egindako titulazioak egokitzeko arazoan alderdiak hartzen ditu aintzat.

7. ERRONKA. KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA

Euskadi ez da saihestezina den klima aldaketak gehien kaltetu dituen eskualdetako bat, baina horren ondorioetara (uholdeak, tenperatura aldaketak eta abar) egokitzeko lan egin beharko du.

Erronka honen adostasun-maila handia bada ere (% 88), eman zitzaion lehenetasuna txikia da gainerako erronken aldean. Arrazoi nagusia zera da: **epe luzeko** fenomeno gisa ikusten dela, EAEN **ondorio zuzen gutxi** dituen, eta, gainera, arazoa existitzen den edo ez kezka daude.

Hala ere, proposatutako **enuntziatua aldatzea** proposatu zen. Enuntziatu berriak **proaktibitate** maila handiagoaren beharra nabarmendu behar du. Proaktibitate horrek fenomeno egokitzea proposatzeaz gain, prebenitzea eta horri lotuta dauden arriskuak murriztea proposatu behar ditu.

Bestalde, aurretik aipatu den bezalaxe, erronka hau 1. eta 2. erronkekin lotuta dagoela uste zuten, eta **hiru erronkak batean integratzea** proposa daiteke.



8. ERRONKA. KUDEAKETA PUBLIKOAREN GERO ETA KONPLEXUTASUN HANDIAGOA

Etorkizuneko erronken dimentsio globalaren (merkatu globalak, aldaketa klimatikoa) eta arazoak konpontzeko herritarrak eskatzen ari diren gero eta protagonismo handiagoaren eraginez, gobernatzeko eredia egokitu eta indartu behar izan da, kudeaketa publikoaren gero eta konplexutasun handiagotari aurre egin ahal izateko.

Erronka honek adostasun maila handia izan zuen (% 79), baina, aurrekoa bezalaxe, gainerakoei baino lehentasun maila txikiagoa eman zitzaion: lehentasun mailan zortzigarrena da. Ondorengo hauek izan ziren iritzi nagusienak:

- Enuntziatua erredukzionista da; izan ere, kontua ez da soilik gobernatzeko eredia, funtzio **publikoa** erronketara egokitzea eta **eraginkorrago** eta ez hain burokratizatu bihurtzea baizik. Halaber, etorkizuneko erronkei aurre egiteko agertoki berriek eskatzen dituzten dinamikak, epe luzera planifikatzekoak, beharrezkoak direla aipatu beharra dago.
- Idazteko modua garapen iraunkorarekin behar bezala lotu ez dela uste zuten. Izan ere, gobernantza **helburu bat** da, eta ez zuten ikusten horren eta garapen iraunkoraren arteko harreman garbirik. Gainerako erronkei honi baino presa handiagoarekin heldu behar zaiela uste da, beraz.

Herritarrak administrazioarekiko konfiantza galtzen ari direnez, erronka hau **sozializatzeko** garrantziari buruzko iritziak nabarmendu behar dira.

9. ERRONKA. KOHESIOA ETA NAZIOARTEKO GARAPENA

Nazioartean dauden desberdintasunek eta pobreak gatazkak (planifikatu gabeko mugimendu demografikoak) eragin ditzakete. Gatazka horiek saihesteko kohesioa eta nazioarteko garapena aktibatzea behar dira.

Erronka honek adostasun maila handia (% 85) eta erdi mailako garrantzia izan zituen. Lehentasun ordenaren arabera seigarrena da. Hala eta guztiz ere, erronkaren ikuspegiari dagokionez, kontuan hartzeko zenbait puntu daude.

- Erronka oker planteatuta dagoela uste zuten, azaltzen diren arazoei **solidaritatearen, aldeaniztasunaren eta lankidetzaren** ikuspuntutik heldu behar baitzaie.
- Nazioarteko garapenaren kontzeptua lotuago egon beharko litzateke politika, ekonomia eta gizarte mailako **nazioarteko erantzukizunarekin**.
- Euskadik erronka honen esparruan jarduteko duen ahalmena **irismen eremutik kanpo** dagoela uste zuten, harremanen eredu global baten mende baitago.

Nabarmetzeko modukoa da, baita ere, erronka hau 3., 4., eta 5. erronkekin lotuta dagoela, baina aurretik aipatutako erronka guztiak lortzeak eragingo duela zuzenean nahiz zeharka kohesioa eta nazioarteko garapena.



Azkenik, erronka berriak proposatzeari dagokionez, planteatutako proposamenak bi multzotan sailka daitezke.

Batetik, erronka kontzeptuaren barruan sar ditzakegunak:

- Kontsumoan oinarritzen den eta oso mendekoa den eredu ekonomikoa
- Garraio ereduaren iraunkortasunik eza, gero eta handiagoa dena
- Genero berdintasuna

Eta, bestetik, jatorrizko arazo edo erronkari baino konponbideari (tresnak) erreferentzia egiten diotenak:

- Hezkuntza sistema agertoki berrietara egokitzea
- Berrikuntzaren, B+G-aren eta ekintzaletasunaren aldeko apustua egitea
- Txikiagotzea
- Lurraldearen antolamendua
- Gizarte ekimenaz kontzientziatzea eta hori bultzatzea
- Ekosistema-zerbitzuak eta biodibertsitatea kontserbatzea
- Teknologia berriak lortzea
- Zerga mekanismoak garatzea (esaterako, zerga sistema berdea)

4.3. Interneten eta posta elektronikoaren bidezko ekarpenak

Lehenengo parte-hartze saioarekin batera, online komunikazio bidea zehaztu da www.irekia.net, www.ecoeuskadi2020.net eta Openideiak web orrien bitartez eta Facebook, LinkedIn eta Twitter sare sozialen bitartez. Komunikazio bide paralelo horrek 1. eta 2. dinamikei egindako ekarpenak biltzeko balio du nagusiki, baina baita EkoEuskadi 2020 garatzeko balio duen beste edozein ekarpen jasotzeko ere.

Sare sozialek duten jarraitzaile kopurua aipatzekoa da: Facebookek 258 ditu, Twitterrek 86 eta Openideiak 49.

Lehenengo dinamikan ondorengo galdera hau egin zen: **Nola definituko zenuke «garapen iraunkorra» lau hitzetan? Termino horri buruzko terminologia bera partekatzen al dugu denok?**

44 erabiltzailek hartu zuten parte eztabaidan eta balio berezia duten **31 erantzun** zenbatu ziren. Horiek garapen iraunkorra terminoari edo hautatutako lau hitzei buruzko hausnarketa txikia aipatzen edo garatzen dute.

Erantzun horiek bost bideren bitartez bildu ziren: Facebook, LinkedIn, Openideiak, Twitter eta ecoeuskadi2020@ihobe.net helbide elektronikoa izan ziren bideak. LinkedIn eta Openideiak aipatzekoak dira; izan ere, bien artean 25 erantzun jaso zituzten.

Online parte hartu zuten pertsonak hautatu zituzten 4 hitzen artean, erantzun ugari jaso ziren; guztira, 70 termino ezberdin zenbatu ziren. Honako hauek dira gehien erabili zituzten hitzak: justizia (6 aipamen), etorkizuna (6), oreka (5). Azkenik, aipatu zituzten beste termino interesgarri batzuk nabarmendu behar dira:


- Egiazko aurrerapen iraunkorrerako garapena
- Garapen autoiraunkorra
- Garapen berriztagarria
- Belaunaldi arteko elkartasuna
- Garapen existentziala
- Hausnarketa-garapena
- Garapena bideragarria
- Betirako hobekuntzak



Bigarren dinamikan, berriz, zera galdetu zen: **EkoEuskadi 2020rako proposatzen dizkizuegun erronken artean zeintzuk dira, zuen ustez, lehentasun handiena dutenak? Zergatik?**

Asko ez diren arren, **14 ekarpen** zenbatu dira orain arte; horietako 7 Facebooken egin dira, 6 Openideiak eta bat LinkedInen.


Online parte hartu zuten pertsonen aburuz, lehengaien eta naturako baliabideen mugari eta balio-sistema ahultzeari buruzko erronkak dira lehentasun handiena dutenak. Proposatutako 9 erronkez gain, gainera, kontuan hartzeko beste bi erronka gehiago aipatu zituzten; garraioaren iraunkortasun ezarekin lotutakoa bata, eta hezkuntzarekin (zentzu zabalean, ez bakarrik hezkuntza sistemarekin) lotutakoa bestea. Guztira 48 erabiltzailek hartu zuten parte horretarako prestatutako bost bideen bitartez, eta horiek, guztira, 71 ekarpen egin zituzten. Hona hemen laburpena.



20. irudia. Interneten eta posta elektronikoaren bidezko ekarpenak

5. Parte-hartzaileen feedbacka

Egindako saioretan 216 feedback inkesta jaso ziren. 272 pertsona bertaratu zirela kontuan izanik, parte hartzaileen % 79, 41ek bete zuela esan daiteke.



21. irudia. Bildutako feedback inkestak

Parte hartzaileen feedbacka jasotzeko inkesta hiru multzotan egituratu zen eta bakoitzak honako galdera hauek zituen:


- a) Lehenengo multzoa Euskadiko garapen iraunkorreko estrategiaren beharra eta eragileak baloratzera bideratuta zegoen:
 1. Ekonomia, gizartea eta ingurumen iraunkortasuna garatzeko estrategia, EkoEuskadi 2020 esaterako, beharrezkoa dela uste duzu?
 2. Nork egin beharko lituzke, zure ustez, ahalegin handienak gaur planteatutako erronkak gainditzeko?
- b) Bigarren multzoak parte-hartze prozesuaren alderdiak baloratzeko eta ekarpenak egiteko balio zuen
 1. Hainbat alderdiren balorazioa (0tik 10era)
 2. Balorazio orokorra (0tik 10era)
 3. Hobetzeko proposamenak/iradokizunak
- c) Hirugarren multzoa erabiltzen diren garraio bideak identifikatzera bideratuta zegoen
 1. Zein garraio bide erabili duzu jardunaldietara etortzeko?
 2. Egindako distantzia

Egitura horren arabera, 1. eta 2. multzoetan lortutako emaitzak azaltzen dira jarraian:

a) 1. multzoa. Garapen iraunkorreko strategiaren behararen eta lotutako eragileen balorazioa

Ekonomia, gizartea eta ingurumen iraunkortasuna garatzeko estrategia, EkoEuskadi 2020 esaterako, beharrezkoa dela uste duzu? galderari dagokionez,


- 211 erantzunetik **bi pertsonak** bakarrik erantzun zuten berandu hasi garela lanean eta egun planteatutako erronkek indarrean jarraituko dutela.
- Hiru lurraldeetako 211 erantzunetik, **% 63,5ak** ekonomia, gizartea eta ingurumena garatzeko estrategia, EkoEuskadi 2010 esaterako, **beharrezkoa dela uste du**, proposatutako erronka guztiei aurre egiteko gizartearen alor guztien parte hartze handiagoa beharrezkoa dela uste duten arren.



22. irudia. EkoEuskadi 2020 bezalako estrategia baten beharrari buruzko iritziak

Nork egin beharko lituzke, zure ustez, gaur planteatutako erronkak gainditzeko ahalegin handienak? galderari dagokionez,

- Erantzunen arabera, **administrazio publikoa** da planteatutako erronkak gainditzeko ahalegin handienak egin beharko lituzkeen eragilea, eta horren atzetik enpresak eta jarduera ekonomikoak.
- Adierazgarria da **herritarrak** aipatu direla erronkak gainditzeko ahalegin handienak egin behar dituztenen artean erakundeen eta gobernuz kanpoko elkarten aurretik.




23. irudia. Eragileei eta erronkak gainditzeko beharrezko ahaleginei buruzko iritziak

b) 2. multzoa. Parte-hartze prozesuaren balorazioa eta iradokizunak


Egindako parte-hartze prozesuaren alderdiei buruzko balorazioa galderari dagokionez,

- Deialdiaren **bilguneek, antolaketak eta bitartekoek** jaso dute poztasun maila handienak.
- Hobetu beharreko alderdiak **dokumentazioari, aurkezpenei, materialei eta itzaropenen kudeaketari** buruzkoak ziren.



24. irudia. Saioari buruzko hainbat alderdiren balorazioa


Saioaren balorazio orokorrari dagokionez, hiru udalerrien **batezbesteko 7,38** lortu zituen saioak. Arabak baloratu zuen hoberen saioa eta Gipuzkoak, berriz, okerren baloratu zuena.



25. irudia. Saioaren balorazio orokorra

Parte-hartze prozesua **hobetzeko proposamenei eta iradokizunei** dagokienez, ondorio hauek atera ziren:


- **94 hobetzeko proposamen eta iradokizun** egin ziren guztira hiru udalerrietan.
- Nabarmentzekoa da Gipuzkoan jaso zirela baloraziorik baxuenak eta 94 proposamenetatik soilik % 8,5 egin zirela lurralde horretan.



26. irudia. Parte-hartze prozesua hobetzeko proposamen eta iradokizun kopurua

Feedback orrien bitartez egindako hobekuntza proposamenen edo iradokizunen edukiei dagokienez:

- Kidetahun-diagrama egiterakoan, hobetzeko proposamenen % **75 lau proposamen nagusitan** sailka daitezke, jarraian adierazten den bezalaxe:
- Proposamenen laurdenak 1eko maiztasuna du; horrek esan nahi du, interesgarriak badira ere, egingo balira eragina norbanakoarena izango litzatekeela.



27. irudia. Hobetzeko proposamenak edo iradokizunak

Hobetzeko lau proposamen nagusiei buruzko oharrak:

- **% 39 tailerrarentzako denbora gehiago.** Aurkezpen orokorreari denbora gutxiago eskaintzea eta eztabaidari denbora gehiago eskaintzea proposatu zen.
- **% 14 koherentzia erabilitako materialean.** Dokumentazioari eta bi aldetatik inprimatutako birziklatutako paperari eta alde bakoitzeko bi gardenkiko aurkezpenei egin zitzaien erreferentzia. Halaber, plastikozko botilen ordez iturriko ura erabiltzea aipatu zen.
- **% 11 dokumentazioa saioen aurretik izatea.** Bilerari buruzko dokumentazio guztia –batez ere diagnosiari eta hizlarien hitzaldiei buruzkoa– aurrez izateko nahia adierazi zen.
- **% 11 herritarren sektoreen ordezkaritza-maila handiagoa.** Prozesuaren hasieratik amaierara arte, iraunkortasunari buruzko ahalik eta iritzi gehien izan nahi dira, batez ere adinekoenak eta gazteenak, baita beste eragile independente batzuenak ere.